

**ASTEAZKENA**

2018/05/16  
6. urtea, 871. zenbakia  
107.6 fm  
[www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**Fronton  
ustiatzeko  
lehiaketako  
pleguak, hil  
amaieran kalera**

Eraikina eraberritu eta  
30 urterako esleituko du  
Tolosako Udalak // 2

Astelehenetik  
aurrera,  
arratsaldero  
irekita Larraulgo  
liburutegia // 3

# ‘Naparra’-ren senideen eskakizunak aintzat hartu ditu Auzitegi Nazionalak

Joxe Migel Etxeberria ‘Naparra’ zenaren familiak jarritako helegitea onartu eta ‘Naparra’ zenaren gorpua berriro bilatzeko agindu du Auzitegi Nazionalak. Familiak eta Iñigo Iruin, familiaren abokatuak, «pozik» hartu dute albistea // 4



IMANOL GARCIA LANDA

## ASTEASU SAN ISIDRO OSPAKIZUN

Baserritarren zaindariaren egunean, Asteasun idi probak egin dituzte plazako probalekuan, azken urteetako ohiturari jarraituz. Beste herrietan bertsolaririk, bazkari-afaririk edo musikarik ez da falta izan // 5

### EH Bilduk Asuncion publifikatzeko proposamena aurkeztuko du

Datorren asteazkenean,  
maiatzaren 23an,  
aurkeztuko du lan  
dokumentua koalizioak  
Tolosako Topic zentroan,  
19:00etatik aurrera // 4

**zozketak**

 <p>Atarikideentzat <b>bi sarrera</b> ditugu</p> <p><b>DELTECO GBC DIVINA SEGUROS</b> partida ikusteko</p> <p>Maiatzak 20, 12:30ean, Ilunbe.</p>	 <p>Atarikideentzat <b>bi sarrera</b> ditugu</p> <p><b>LEO BASSI</b> Utopia ikuskizuna</p> <p>Maiatzak 18, 20:30ean, Leidor.</p>
--	---

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

# Fronton eraikina eraberritu, eta 30 urterako esleituko du udalak

500.000 euroko inbertsioa egingo dute eraikina berritzeko obran; maiatza amaieran negozioa ustiatzeko lehiaketaren pleguak argitaratuko dituzte

## Itzea Urkizu Arsuaga

25 urteren ondoren, udalarekin hitzartutako kontzesioa amaituta, Tolosako Fronton jatexek eta Fronton kafetegiak ziklo bat itxi dute azken hilabeteotan. Eraikina berriro martxan jarri nahi du udalak, eta horretarako ezinbesteko izango dute eraberritze zenbait egitea; eraikinak, gaur egun, ez ditu oinarriko irisgarritasun baldintzak betetzen. Bide horretan, Tolosako Udalak bi esleipen egingo ditu, frontoiko eraikinari begira: eraberritze obra egingo duen enpresarena, bata, eta datozen urteetan jatetxea edo kafetegia ustiatuko dutenena, bestea.

Obrari dagokionez, Tolosako Udalak balizko kostuen azterketa bat egin zuen iaz, «lanen tamaina ikusita»; eraberritze lanen kostu osoaren kalkulua egin nahi izan zuten, horren arabera esleipen pleguak prestatu ahal izateko. Horrela, beraz, udalak «ezinbestekotzat» jo du Fronton eraikinaren eraberritzean inbertsio bat egitea: «Gainerakoan, esleipena bideraezina litzateke». Horrenbestez, Tolosako Udalak 500.000 euro bideratuko ditu Fronton eraikineko obretara.



Oinarriko eraberritzeak datorren azarorako amaitzea aurreikusi du udalak. TOLOSAKO UDALA

Segurtasun eta irisgarritasun baldintzak betetzeko, batetik, eraikinaren teilatua eta fatxada berrituko dituzte eta, era berean, malda eta igogailua ere eraikiko dituzte eraikinean. Lan horiez guztiez gain, kafetegi eta jatetxearen ardura hartzen dutenek bestelako obrarik egin nahiko balute, beren gain hartu beharko lukete obra eta berrikuntza ho-

## 500.000 30

### MILIOI ERDI EURO, ERABERRITZERA

Fronton eraikina gaur egungo segurtasun eta irisgarritasun baldintzetara egokitzeko, nahitaezko zenbait obra egin behar dira. Kostua handia dela ikusita, Tolosako Udalak 500.000 euroko inbertsioa egingo du teilatua, fatxada, malda eta igogailuaren obrak finantzatzeko.

rien kostua. Hori dela eta, Tolosako Udalak Fronton eraikineko ustiatzea 30 urterako hitzartea erabaki du, inbertsioa amortizatu ahal izateko.

### ZIKLO BERRI BATEN HASIERA

Aste honetan bertan esleituko du, Tolosako Udalak, Fronton eraikineko obra, izan ere, eraberritzea nork egingo duen zehaztea nahitaezkoa da, gerora erai-

### HIRU HAMARKADATAKO ESLEIPENA

Eraikina zahar-berritu eta gero, jatetxe eta kafetegi barruan berrikuntzak egitea esleipendunek hartu beharko dute beren gain. Horregatik, balizko inbertsio hori amortizatu ahal izateko, udalak Fronton eraikinaren kontzetsio epea 30 urtera luzatzea erabaki du.

kinaren ustiapena lehiaketara ateratzeko.

Tolosako Udalak azaldu du, «anbizio handiko proiektua» sustatu nahi izan dutela Fronton eraikinerako: «Aurreko esleipendunek ospe eta izen ona eman diote jatetxeari, eta balio erantsia eman nahi izan diogu». Bide horretan, jatetxearen eta pilotalekuaren arteko horma leiho bilakatu, eta bezeroek kantxa ikusi

ahal izatea zen hasierako asmoa. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak, ordea, atzera bota du ideia: eraikin babestua da eta ezinezkoa da halako obrak garatzea.

Prozesu horrek lehiaketako pleguen atzeratzea ekarri du, baina hilabete honetan bertan jarriko dituzte, azkenik, jendaurrean. Kafetegia eta jatetxea ustiatzeko interesa dutenek hilabete eta erdi izango dute beren proposamenak aurkezteko eta, aurreikuspenen arabera, udan bertan esleipena egingo du Tolosako Udalak.

Kudeaketa horrek guztiak ahalbidetuko du, besteak beste, Fronton eraikinak ziklo berri bati ekitea. Maiatza amaieran eraberritze lanak hasiko dira, eta bost hilabeteren bueltan amaituko dituzte. Ondoren, negozioaren ardura hartzen dutenek helduko diote beren lanari, eraikina berriro martxan jarri ahal izateko.

## IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik. Iragarki guztiak [iragarkilaburrak.eus-en](http://iragarkilaburrak.eus-en)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua

# Astelehenean aro berri bati ekingo dio Larraulgo liburutegiak

Hemendik aurrera arratsaldero zabalduko ditu ateak eta udaletxeko ganbaran dagoen espazioa berregokitu dute gune atseginago bat egiteko haur, gazte eta helduentzat

Jon Miranda Larraul

Datorren astelehenean aurrera Larraulgo kultur bizitzaren erdigune bihurtuko da udal liburutegia. Edo hori nahi luke, behintzat, Aneli Urbietak alkateak. Horretarako apustua egin eta astelehenean ostiralera, arratsaldero, 16:30etik 19:30era egongo da zabalik udaletxeko ganbaran kokatuta dagoen liburutegia. «Astelehenean bakarrik irekita, jendeak ez zuen etortzeko ohiturarik izaten eta zerbitzua zabaltzeko asmoa buruan bueltaka generabilen garaian, parean tokatu zitzaigun enplegu planerako diru laguntza bat». Horri eskerrak, sei hilabetez lanaldi osoz aritzeko kontratatu ahal izan dute Nora Urbizu billabonatarra.

Bere lana ez da liburuzain izatera mugatuko, ordea. «Herrian kultur ekitaldiak antolatzen eta herriko eragileak koordinatzen lagunduko digun pertsona baten beharra ere baguen», dio Urbietak. Urtea abiatu zenetik, martxoaren 8aren ingurukoak eta kirol astea antolatzen lagundu du Urbizuk, eta alkatearen esanetan, «martxa politean» doaz, «helburua urte osoko dinamika bat sortzea da».

## KULTUR DINAMIZAZIOA

Urte hasieratik, kultur dinamizazioan «nahi bezain airoso» ez dela aritu aitortu du Urbizuk, besteak beste, liburutegiaren espazioa egokitzen aritu baita azken hilabeteetan, buru-belarri. Larraulgo Udalak horretan jarri ditu indarrak, jakitun baita liburutegia kultur espazio bezala ere ulertu daitekeela. Urbietak horrela uste du: «Herriko nerabeak ez dut uste liburu bat irakurtzera etorriko direnik, baina etxeko lanak egiteko aitzakian gerturatzaren badira eta Norarekin hartu emana egiten badute, gauza berriak antolatzeak aukera sor daitezke». 17. urtez azpiko 29 gazte daude Larraulen eta horietako



Nora Urbizuk liburuzain eta kultur teknikari lanak egingo ditu Larraulen. J. MIRANDA

asko gazte lokalean elkartzen dira. Handik atera eta herriko dinamikan inplikatzeak beharra ikusten du alkateak. «Oraingo gazteak herrigintzan aritzen dira, baina oraindik ere gazteago direnek erreleboa hartu behar dute. Horretarako, ezinbestekoa da herrian geratzea eta biltzeko toki bat edukitzeaz gain, dinamizatu dituen pertsona bat egoitea bertan». Horregatik, beste sei hilabetez luzatu diote kontratua Urbizuri, lanaldi erdiz.

## ESPazio ERABERRITUA

Urtarriletik itxita egon da liburutegia hainbat egokitzapen egiteko eta auzolanean margotu dituzte paretak, muntatu dituzte altzariak eta egin dituzte sarrerako muralak. Espazio «goxo eta eroso» osatu nahi dutela aipatu du Urbizuk eta horretarako liburutegian gune ezberdinak atondu dituzte: «Bi sarrera ditu, eta horietako batetik sartuz gero, Txiki Txokoa deitu diogunarekin egin daiteke topo. 12 urtetik bererako umeentzako espazioa da eta bertan ipuin kontaketa saioak eta beste hainbat ekimen burutuko dira. Hortik aurrera, nerabeentzako tokia eta KZ Gunea kokatuko dira eta aurrerago ikasteko mahaiak jarriko ditugu. Helduentzako sofa batzuk ere egongo dira, irakurketa patxadatsuagoak egiteko, prentsa eta aldizkariak irakurri ahal izateko».

Hilabete hauetan, udaletxeko ganbaran liburutegia birgaitzeaz gainera, katalogoa eguneratzen jardun du Urbizuk. 5.000 ale inguru katalogatu ditu eta ordenean jarri: «Askotariko liburuak daude, txikien liburuetatik hasita, narratiba, antzerkia, biografiak eta historiaren ingurukoak ere badira. Artearekin lotutako liburu dezente dago».

Liburutegia txukuntzeko orduan, Aiztondoko Plazida Otaño liburutegitik jasotako «laguntza» nabarmendu du Urbizuk. Koordinatuta jardungo du Larraulgo liburutegiak bailarakoekin, Alkiza eta Adunakoak egingo duten bezala. Orain arte, Aiztondo zerbitzuen mankomunitateak liburuzain bakarra zuen hiru liburutegietarako, eta orain arratsaldero zabalduko dira hiru herrietakoak. Egoera berriak, aukera berria sortuko du hiru herrien artean kultur koordinaziorako. Hiru herriek, gainera, foro berri bat osatuko dute Zizurkil eta Asteasuko teknikariek batera, «batez ere elkarren berri izan eta gauzak antolatzerakoan elkar ez zapaltzeko», dio Urbizuk.

Liburutegia, astelehenean, maiatzaren 21ean inauguratuko dute. 17:30ean Ibai Esoainek *Bertsolarhitza* emanaldia eskainiko du eta ondoren herritarrentzat pintxoak izango dira. «Oparoa» izatea espero dute ibilbide baten hasiera izango da.

# Igandera arte luzatuko dira III. Kirol asteko ekitaldiak

Larraulen, igandean, Erniopeko Zortzi Herrien Arteko Mendi Ibilaldiarekin abiatu zen astea, eta gaur, Ordizia Rugby elkarteko hitzaldia izango da

Erredakzioa Larraul

Larraulgo kirol batzordean biltzen diren herritarrek antolatu dituzte III. Kirol Asteko ekitaldiak. Asteburuari begira izango dira gehienak. Etzi, Asteasutik Larraulera, oinezkoen bidetik egingo dute kronoigoerarekin batera bertso pilota ekimena izango da frontoian, 19:30ean hasita.

Larunbatean, berriz, goiz partean haurrak izango dira protagonista, joko ezberdinak izango dituztelako plazan, eta segidan, duatloia prestatuko dutelako haietentzat. Aurreko urteetan bezala, Larraul eta Asteasu arteko apustua ere izango da, larunbatean, 17:30ean. Asteasuko plazan hasi eta Larraulgoan amaituko da apustua eta bi herrietako gazteek hartuko dute parte.

## III. KIROL ASTEA LARRAULEN

### Maiatzak 16, asteazkena

**17:30.** Polizi eta lapurren jolas erraldoia haurrentzat, herriko gazteek antolatuta. Ondoren, merienda gazte lokalean.

**19:30.** Ordizia Rugby elkarteko hitzaldia.

### Maiatzak 17, osteguna

**18:00.** Xabier Mendiaraz Kiropraktika zentroaren eskutik hitzaldia: *Osasunaren bost oinarriak: osasuna barnetik dator.*

**19:45.** Zumba saioa frontoian.

### Maiatzak 18, ostirala

**18:15.** Kronoigoera, Asteasutik Larraulera, oinezkoen bidetik.

**19:30.** Bertso pilota jaialdia frontoian.

toian. Bertsotan: Oihana Iguaran eta Beñat Gaztelumendi; Pilotan: Liza-so-Esnaola, Urmeneta-Azpitarte-ren kontra.

### Maiatzak 19, larunbata

**10:00.** Haurrentzako joko ezberdinak plazan: sokatira, toka, boloak...

**12:00.** Duatloia, haur eta gaztetxentzat.

**17:30.** Herriarteko apustua: Larraul-Asteasu.

### Maiatzak 20, igandea

**10:00.** Mendi ibilaldi familiarra (SL-GI-45). Ondoren, hamaiketako parte hartzaileentzat.

**18:00.** Frontenis txapelketako finala.

**19:00.** Futbito txapelketako finala.



IRURAKO UDALA

OHARRA

### AURRETIAZKO KONTSULTA MERKATUARI

Irurako Udalak lokal bat dauka San Migel plazako 11 zenbakiko behean. Zerbitzu orokorreko (elikadura, arropa, ostalaritza...) saltokiak falta direla ikusita, Udala lokalaren epe luzeko lagapena sustatzeko aukera aztertzen ari da, bertan saltoki bat jarri eta lehen adierazitako zerbitzuetako bat emateko. Horretarako interesatuek bi hilabete izango dituzte, maiatzaren 15-tik uztailaren 15-era, proposamenak aurkezteko ildo horretan. Informazio gehiago lortzeko helbide honetara zuzendu dezakete: Udala 943601333 - idazkaritza edo idazkaritza@irura.eus.

Iruran, 2018ko maiatzaren 11an.

ALKATEA

(Ana Jesús Leunda)

# EH Bilduk Asuncion klinika publikatzeko proposamena landu du

Koalizioak datorren asteazkenean aurkeztuko die dokumentua herritarrei, Tolosako Topic zentroan; «eztabaidarako lan dokumentu bat» dela nabarmendu du

**Rebeka Calvo** Tolosa

Tolosaldeko osasun arreta publikoaren inguruko eta Asuncion klinikari buruzko proposamen «zehatza» landu du EH Bilduk. Datorren asteazkenean, hilak 23, aurkeztuko dute Tolosako Topic zentroan, 19:00etatik aurrera.

Koalizioak ez du gehiegi aurreratu nahi izan, baina proposamenak lau ardatz dituela argitu du Unai Iraolak: «EH Bilduren osasungintza publikoari buruzko filosofia eta lan ildoak; Tolosaldeko osasun publikoak behar dituen azpiegituren berrantolaketa buruzko gogoeta eta proposamena; langileak integratzeko proposamen zehatza; eta Legebiltzarreko ibilbide politiko zein legalaren inguruko azalpenak eta EH Bilduk aurrera eramango dituen iniziatiben azalpen eta proposamena». «Egingarria den proposamena da eta, batez ere, borondate politikoa eskatzen du», gaineratu du.

Eskaeretatik harago, proposamen zehatzak egitearen garrantziaz mintzatu da ere Kristina Pelaez eta esan du, eskualdeak proiektu berri eta moderno bat behar duela, herritarren beharrik kontuan izango dituen. «Proposamena herritarrei eta afera honetan interesa duen orori aurkeztu nahi diogu». Proposamena ez da dokumentu itxi bat, «eztabaidarako lan dokumentu bat» dela esan du Pelaez



EH Bilduko kideek eman zuten proposamenaren berri atzo, Tolosan. R. CALVO

zek, eta gaineratu «osasun arreta aldatzeko tresna» moduan ikusten duela EH Bilduk dokumentua. Horregatik jaso nahi dituzte herritarren iritziak, baina ez bakarrik horiek, «osasun politikan, besteetan bezala, herritarren parte hartzearekin eta gardentasunez jokatu behar da. Osasun arreta hobetzea bilatzen badugu proposamena herritarrekin, erabiltzaileekin eta profesionalekin konpartitzea da asmoa, iritziak jaso eta eztabaidarako prozesua irekiaz, eskualderako nahi dugun osasun arreta adosteko».

## URTEETAKO AUZIA

Pelaezek gogoratu du urteak dira Tolosaldeko osasun arreta publikoa auzitan dagoela. «Arrazoiak desberdinak izan dira; langileen egoera, Asuncion klinikak Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren baldintzak ez betetzea, klinikaren beraren

egoera, Tolosaldeko arretan inbertsio falta, mediku espezialistek alde egitea...», esan du. Arrazoi horiek guztiak, klinika pribatu bat –Asuncion– erreferentziatzeko ospitale baten moduan lan egitearen ondorio direla ere esan du. «Honen atzetik osasungintzaren eta asistentziaren pribatizazio nahia» dagoela nabarmendu du EH Bilduko kideak.

Osasungintzan «negozio nahia» dagoela esan du eta herritarrek jasotzen duten arretan ondorio negatiboak edukitzea «eztabaida ezina» dela gaineratu du. «Baliabide guztiak ez baitira arretara bideratzen». «EH Bilduk argi dauka zerbitzu publikoak kudeaketa publikoa behar duela izan eta ez bakarrik baliabide guztiak osasungintzarako erabiltzeko, baita integrazioak eraginkortasuna eta koordinazioa nabarmen hobetzen dituelako ere».

# ‘Naparra’ berriro bilatzeko agindu du epaitegiak

Joxe Migel Etxeberria ‘Naparra’ zenaren familiak jarritako helegitea onartu du Auzitegi Nazionalak

**Erredakzioa** Lizartza

Espainiako Auzitegi Nazionalak Joxe Migel Etxeberria *Naparra* zenaren gorpua berriz ere bilatzeko agindu du. *Naparraren* senideen abokatuak, Iñigo Iruinek, eman zuen albistea atzo, eta gehitu zuen berak jarritako helegite bat onartuta erabaki duela auzitegiak bigarren bilaketa bat egitea. Izan ere, iazko apirilean egin zuten lehen bilaketa Mont de Marsan (Landak) inguruan, baina ez zuten ezer aurkitu. Bilaketa hori eta gero, Ismael Moreno epaileak auzia artxibatzea erabaki zuen.

Zehazki martxoan itxi zuen auzia, Morenok, baina familiak auzia ez ixteko eta diligenzia berriak irekitzeko eskatu zuen. Horiek horrela, Auzitegi Nazionalak bigarren bilaketa hori egingo du

eta familiaren beste eskaera bat ere onartu du; *Naparraren* gorpua egon daitekeen bi lekuen berri eman zuen CESIDeko kide ohi Arnau de la Nuez deklaratzera deitza. Hori, dena den, zaila izango dela onartu zuen atzo, Iñigo Iruinek, leku ezezagunen batean baitago, Guardia Zibilak esan duenez.

Iruin pozik azaldu zen auzitegiaren erabakiarekin, horrek familiari arrazoia ematea ere badelako. «2016an zabalduetako ikerketa lerroa ez dago agortuta», esan zuen. Oraindik ez dakite bilaketa berria noiz egingo den, Auzitegi Nazionalak eta Mont de Marsango Instrukzio Auzitegiak egin behar dituztelako izapideak.

Eneko Etxeberria *Naparraren* anaia pozik azaldu zen berriarekin, «jarraituko dugu aurkitu arte», esan zuen.

## Energia modu eraginkorrean erabiltzeko tailerra

**BERASTEGI** // Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoa Argitu programaren barruan, energia eta dirua aurrezteko saio praktikoa egingo dute Berastegiko udaletxean, maiatzaren 24an, 18:00etatik aurrera. Parte hartzeko izena eman behar da. Azken eguna maiatzaren 17a izango da, eta [udala@berastegi.eus](mailto:udala@berastegi.eus) helbidera idatzia edo 943 68 30 00 telefono zenbakira deituta eman daiteke.

## Lizartza eta Orexako herritarren arteko kantu afaria

**OREXA** // Orexako Ostatuaren Ostiral Kulturalak ekimenaren barruan, Lizartza eta Orexako herritarren arteko kantu afaria egingo dute ostiralean, hilak 18, 21:00etan hasita. Evaristo El-duaien musikak lagunduta egingo dute saioa. Afarirako izena eman behar da ostatuan bertan (943 68 22 90).

## Lizartzako Hostotsa abesbatzaren kontzertua

**LIZARTZA** // Hostotsa abesbatzak emanaldia eskainiko du larunbatean, hilak 19, Lizartzako elizan 20:00etatik aurrera, Ereñotzuko Ozenki abesbatzarekin batera. Lizartzako Hostotsa abesbatza 2015eko udazkenean sortu zen. Partaide gehienak herriko Isk&bila txarangako kideak dira eta gaur egun, 15 ahots eta hainbat musikarik osatzen dute taldea. Jesus Mari Esnaola *Xoanek* zuzentzen du korua.

## Gael-eko futbolariak bikain, Munduko Txapelketan

**TOLOSALDEA** // Gipuzkoako Herri Txikietako Aretto Futbol Elkarteko Gael 1 taldeak hirugarren egin zuen Munduko Txapelketako areto futboleko eta Gael 2k seigarren. Mikrofutsalean Gael 1ek finala jokatu zuen, baina 2-0 galdu zuen. Gael 2k hirugarren egin zuen eta Gael 3k zazpigarren. Azkarai izan zen atezainik onena.

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

**EGUZKITZA**

Maiatza bukaera arte zabalik

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko  
TEL: 943672613

Usabal Auzoa, Amaro 20400 TOLOSA (GIPUZKOA)

## Harri Jaia ospatuko dute bihar, bedaiotarren egun kuttuna

**Erredakzioa** Tolosa

Usadiori jarraituz, nekazaritzak eta erlijioak bat egiten duten eguna ospatuko dute bihar Bedaion, Harri Jaia. Beti Asentzio egunetik zortzi egunetara, osteguneguz ospatzen den jai herrikoi hori oso berezia eta maitatua dute bedaiotarrek.

Jai eguna meza nagusiarekin hasiko da, 11:00etan. Berriro ere uztak suntsitu zituen harri jasa gerta ez dadin, prozesioan herriko elizari buelta eginez eskaria egiten dute bedaiotarrek. Ondoren Eva eta Alaitz Dorronsoro trikitilariak eta Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa bertsolariak animatuko dute eguna.

Hamaiketako egingo dute Abaetxen, eta herri bazkaria ere bertan izango da. Trikitilari eta bertsolariak afalostera arte ibiliko dira jira ta bira. Afaria Artubi elkartearen izango da egunari amaiera biribila emanez.

## Intxurre futbol taldekoek hartxintzar zelaiari agurra egingo diote

**I. Garcia Landa** Alegia

Intxurreko futbol taldeak bere eguna ospatuko du maiatzaren 26an, eta aurtengoa berezia izango da, denboraldiaren bukaeran Elorri futbol zelai hartxintzarrezkoa izateari utzi eta belar artifizialezkoa bihurtuko delako.

Hori horrela, Intxurretik partida bat antolatu dute egun horretarako, 10:00etan hasita. Eta horretarako gaur egungo jokalariei zein aurretik izandakoei egin die gonbita. Izena herriko tabernetan eman daiteke. Hartxintzarrean jokatzeko den azken partida izango da, maiatzaren 28an obrak hastekotan baitira.

Intxurre egunean, futbol partida jokatu eta gero bazkaria egingo da plazan, zahagiardo modura. Klubak edaria jarriko du, eta janaria egun fitxa dutenek izango dute. Beste guztiak etxetik eramanez beharko dute jatekoa.

# Baserritarren eta herri kirolen eguna

### San Isidro Egunez, Asteasun idi probak eta Zizurkilan aizkolarien lehia izan ziren

**Imanol Garcia Landa**

Eskualdeko hainbat herritan ospatu zuten atzo baserritarren zaindariaren omenezko San Isidro Eguna. Amasan, besteak beste, hamaiketako egin zuten, Asteasun idi probak eta Zizurkilan aizkolariak aritu ziren.

60 pertsona inguru elkartu ziren Amasako Uxo Toki elkartearen hamaiketako egiteko, horietako asko meza entzun eta gero. Larrañaga eta Loidisalete bertsolariak hamaiketakoan ziren ere, ondoren plazan abesten ari zekoak baitziren.

Asteasun beste behin idi probak izan zituzten. Gutxienez 30 urte badira plazako probalekua erabiltzen dela egun horretan. Atzokoan Astigarragako Aitor Matxainen idi pareak irabazi zuen lehia, 53 plaza eginez, Asteasuko Itxaso Arrutiren idi pareak 44 plaza egin zituen bitartean. Matxainen animaliek eskarmen handiagoa dute plazan, eta hori nabaritu zen atzoko deman.

Zizurkil Goiko frontoian egin zituzten eguerdi bitarteko ekitaldiak. Pilotan afizionatuen maila handiko partida ikusi zen. Eskualdeko lau pilotari aritu ziren, eta Peru Labaka zizurkildarrak eta Aizpuru asteasuarrak 22-19 irabazi zioten Zufiria berrobite rari eta Urruzola asteasuarrari. Ondoren, aizkolarien lehia iritsi zen. Binaka aritu ziren, eta lau kanaerdiko eta lau 60 ontzako enborrak ebaki behar izan zituzten. Joseba Otaegi zizurkildarrak eta Urteaga idiazabaldarrak osatu zuten bikoteak irabazi zuen, 21 minutu eta 10 segundoko denbora eginez. Bere aldetik, Irazu eta Unai Otaegi zizurkildarrek osatu zuten bikoteak 22 minutu eta 25 segundoko denbora behar izan zuen lanak bukatzeko.

Hiru herrietan bazkariak egin zituzten, eskualdeko beste hainbat herritan bezala, eta ez zen trikiti doinurik edota bertsoirik falta izan gehienetan.



Hainbat urtetan egin dituzte idi probak San Isidro Egunez Asteasun. Irudian, Itxaso Arruti asteasuarraren idi pare. I.G.L.



Aizkolariak erakustaldia egin zuten Zizurkil Goiko Intxur pilotalekuan. I.G.L.



Amasako Uxo Toki elkartearen hamaiketako egin zuten. I.G.L.

# IV. ataria pilota txapelketa

## Gelditu gabe, aurrera

### IV. ATARIA PILOTA TXAPELKETA

#### ESKUZ

##### BENJAMINAK B

##### BERROBI

Elduaien-Gorostidi	16
Goikoetxea-Alijostes	6
Val-Elola	0
Arozena-Etxetxipia	16
Goñi-Galartza	16
Zabala-Maiza	12
Zuriarrain-Lasa-Domintxin	16
Otegi-Maioz	3
Ipentza-Iturrioz	12
Errandosoro-Zaldua	16

##### VILLABONA

Aizpurua-Aranberri	16
Malkorra-Camio-Tolosa	1
Dieguez-Larrarte	16
Gartzia-Ormazabal-Arsuaga	2
Saizar-Ugartemendia-Bercianos	16
Renegro-Gabarain	8
Gorostiaga-Ruiz	16
Garmendia-Herrero-Sagarna	11
Iraola-Navarro	0
Yurrita-Artola-Gartzia	16

##### ANOETA

Oruezabal-Lertxundi-Urdapilleta	12
Lanzeta-Aburuza	16
Iruretagoiena-Zabala	16
Aranburu-Urkola	0
Iparragirre-Ormaetxea	16
Aizpurua-Aranalde	1
Vicente-Vicente	0
Arruabarrena-Altuna	16
Astibia-Eskioga	16
Otegi-Benjarano	11
Argote-Zubeldia	16
Garmendia-Zubillaga	12

#### BENJAMINAK A

##### ALBIZTUR

Perurena-Tolosa	16
Zubillaga-Lobo	0
Aburuza-Aburuza	8
Jauregiberri-Pablo	16
Arandia-Elola	16
Begiristain-De Dios	9
Gonzalez-Erro	16
Belauntzaran-Tolosa	2
Mujika-Olasagasti	16
Zubia-Agirre	7

##### IKAZTEGIETA

Altuna-Unanue	16
Irastortza-Olano-Rementeria	9
Lacarra-Otaegi-Jauregi	8
Goitia-Elola	16
Saralegi-Munduate	9
Fernandez-Izagirre	16
Agirrezabala-Zubillaga	16
Aranburu-Agirrezabal	5
Arteaga-Larrarte	16
Azurmendi-Maioz	7
Iturbe-Urbieta-Etxart-Ormazabal	16
Arruabarrena-Eskisabel-Agirrezabala	0

##### IBARRA

Zufiria-Odrizola	16
Gallego-Gallego	0
Olano-Olaetxea-Olaetxea	10
Gartzia-Zaldua	16
Lopetegi-Lanzeta	16
Imaz-Odrizola	5
Sanchez-Ayestaran	16
Estevez-Karrera	8
Oñate-Galarraga	16
Alvarez-Baleztena	6

#### ALEBINAK

##### ALKIZA

Goikoetxea-Iglesias	16
Zubeldia-Urdapilleta	9
Larrauri-Roteta	4
Murua-Ugartemendia	16
Gorostiaga-Ruiz	16
Goikoetxea-Agirre-Jauregi	3
Lasarte-Zubillaga-Bereau	16
Borratxero-Itxaso-Jimenez	1
Lanzeta-Segurola	16
Astrain-Iturrioz	11

##### BIDANIA-GOITZ

Gibelalde-Tejeria	16
Barbera-Aperribai	4
Garaikoetxea-Collado	6
Zabala-Iparragirre	16
Dorronsoro-Altuna	8
Cestau-Aristeta	16
Malkorra-Ugartemendia-Yeregi	3
Arrospide-Urruzola	16
Castro-Tolosa	16
Aranburu-Aranburu	10

##### ASTEASU

Gonzalez-Zubillaga	0
Otermin-Zabala	16
Karrera-Tejera-Artola	16
Etxart-Saizar	4
Odrizola-Goenaga	16
Agirrezabala-Amondarain-Agirre	1

#### INFANTILAK

##### AMEZKETA

Otegi-Irazustabarrena	8
Aranburu-Aranburu	18
Gorostidi-Gorostidi	18
Rojas-Iratorza	17

Amundarain-Azkoitia	Atzeratua
Mendizabal-Sorarrain	

##### LIZARTZA

Iraeta-Gabirondo	18
Agirre-Huitzi	17
Ontsalo-Zabala	0
Belauntzaran-Tejera	16

#### PALAZ

#### ALEBINAK

##### ALTZO

Maiz-Urkola	8
Urkola-Aranburu	20
Beyonce-Otegi	10
Imaz-Beobide	20

#### INFANTILAK

##### ALTZO

Maiz-Arrieta	19
Izagirre-Sarasola	20
Zubizarreta-Faz	3
Ugartemendia-Agirre	20

#### KADETE-JUBENILAK

##### ZIZURKIL

Usabiaga-Aranburu	25
Otegi-Beloki	24
Urkola-Karrera	25
Iturriotz-Herrero	19

#### INFORMAZIOA

Ataria Pilota Txapelketaren inguru-ko informazio eguneratua:  
[www.ataria.eus/bereziak](http://www.ataria.eus/bereziak)

## #Afiziorik gabe ez dago ikuskizunik



#### Aulkitik

**Aiora Galarza Balerdi** Tolosa CF

**A**urreko asteko zapore gazi-goza eta gero kopan aukerak izaten jarraitzeko partida garrantzitsua zen hernanien kontrakoa eta datorren asteburuan egiten dugunaren arabera etxean denboraldiko azken partida izan zitekeena jokatzeko puntu ginen. Denboraldia etxean partidarik galdu gabe bukatu eta urte osoan babesa eman diguten zaletu guztiei eskerrak emateko asmotan bildu ginen Usabalen. Kafea hartu, jubenilen zein infantilen partidak pixka bat ikusi eta auto gidari berriak zoriondu ondoren sartu ginen aldagelan.

Partida espero baino errazago joan zen eta hasieratik izan ginen baloiaren jabe. Aste osoko lanak fruituak eman zituen eta horrela aurreko astean falta izan zitzaizkigun golak laster iritsi ziren. Bukaera 5-0 Ainhoa Bengoetxea, Zuriñe (2), Maddi eta Mirari golegile eta talde osoaren lan bikaina. Ondoren aldagelan Maria Martijaren bisita eta gaueko afaria gehien ahotan.

Hurrengo astean irabaziz gero kopan aurrera eta denboraldia borobiltzen jarraitzeko aukera, hala ere gertatzen dena gertatzen dela harro taldeak egindako denboraldiaz. Bukatzeko, #Afiziorik gabe ez dago ikuskizunik. Mila esker!

Hilberriak eta urteurrenak



### Migel Zabala Beisti

Atzo hil zen.



*Joan zara, baina gure artean izango zaitugu beti*

Zure kuadrilla

### ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

#### Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 € <small>bez barne</small>

ESKELAK • [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

# «Buruz burukoa da niretzat dagoen txapelketarik politena»

## JON ERASUN PILOTARIA

Bakaikoak eta Erasunek Promozio Txapelketako finala jokatuko dute larunbatean, Iruñeko Labrit pilotalekuan, 17:00etan hasiko den jaialdiaren barruan

### Asier Imaz Zizurkil

Ugalderi eta Urretabizkaia II.ari irabazi ondoren iritsi da Promozio Txapelketako finalera Jon Erasun (Zizurkil, 1996).

#### **Txapelketan, orain arteko zure partidetan, ikusi al duzu dirua nola ateratu den?**

Partiden aurretik kontua beti izaten da. Saltsa horretan gaudeenez pilotariok, jakin nahi izaten dugu jendeak zer pentsatzen duen.

#### **Ugalderen aurkakoan nola ateratu zen?**

Ez nago ziur, baina uste dut bere alde ateratu zela.

#### **Beñat Urretabizkaiaaren aurkakoan?**

Doblean bere alde.

#### **Diruak faborittoa zein den erakusten baldin badu, partida hasieran behintzat, orain arte dena irauli duzu.**

Diruak beti joan behar izaten du alde batera. Diferentzia handi samarrarekin ibili da nire partidetan, baina azkenean frontoian erakutsi beharra dago, eta hor

nik nire lana nahiko ondo egin dudala uste dut. Finalean ere aurka aterako delakoan nago, Bakaikoa txapelketa oso ona egingen ari delako eta berme bat delako pilotari bezala.

#### **Zer egin duzu finalera begirako egun hauetan?**

Lehen egunak errekuperatzeko hartu nituen, jokatutako bi partidak gogorrak izan zirelako; 300 pilotakadatik gorakoak izan ziren. Gero, ostiralean, Labriten entrenatu nuen pixka bat. Azken aste honetan ere joan naiz, baina lasaitasunez.

#### **Labrit zer moduzko pilotalekua da zuretzat?**

Niri gustatzen zait. Pilotaleku lasaia da, normala. Askotan jokatu dugu bertan, gainera. Ez dago inongo aitzakiarik.

#### **Bakaikoak Dario eta Gorka utzi ditu kanpoan. Nolako aurkaria da zuretzat?**

Oso maila onean dagoela erakutsi du. Bere lana oso ondo egiten duela erakutsi du partida horietan. Berari irabazteko asko jokatuko behar da. Partida gogortzen



IRATISAIZAR

saiatuko dela uste dut, lan asko egingo duela. Nik oso ondo jokatuko beharko dut berari lanak emateko.

#### **Zure jokoa zein izango den partidak erakutsiko du, ezta?**

Hasieran beti pentsamendu batekin joaten zara, baina gero par-

tidak erakusten dizu zer egin. Han zuk hartu behar izaten dituzu erabakiak. Ni lana egiten hasiko naiz eta gero ikusiko da aldatu behar dugun edo ez.

#### **Zure buruari zer eskatzen diozu?**

Gutxienez nire lana egitea. Nire

lana egiten baldin badut irabazteko aukera izango dudala uste dut.

#### **Promozio Txapelketa behe behetik hasi zenuen, eta finalera iritsi zara. Hori egitea ez da erraza izaten.**

Agirreraren aurka ez nuen jokatu, lesioa zuelako. Hala ere ilusio handia egiten dizu behe-behetik hasi eta partidak irabazten ari zarela ikustean. Batez ere buruz buruko txapelketa niretzat dagoen txapelketarik politena delako, eta hor jokatzea badaukazula ikusten duzulako.

#### **Txapelketa politena?**

Eta zailena. Frontoian bakarrik zaude, inoren laguntzarik gabe. Hor bakoitzak atera behar izaten ditu kontuak. Eta niretzat hori da txapelketarik politena.

#### **Atzelaria izanagatik, Amezketako Joxean Tolosa irabazia zara, 2013an.**

Jubeniletan izan zen, Elizaldearen aurka. Atzelariontzat ez da erraza izaten buruz burukoa. Aurrelariak airez jokatzen dute, eta guri gehiago kostatzen zaigu. Normalean faborittoa aurrelaria izaten da, baina nire ustez, entrenatuz eta denborarekin prestatuz atzelariok ere lan ona egin dezakegu buruz burukoan.

#### **Herrian ba al da finalerako giorrik?**

Finalera joatekoak dira. Ilusio pixka bat badago, eta ea nik lan on bat egiten dudan eta denok egun on bat pasatzeko aukera daukagun.

#### **Presiorik sentitzen al duzu?**

Ez. Nire buruari jartzen diodana. Ez dut pentsatzen bai ala bai irabazi beharrekoa denik. Lasai hartzen ari naiz, eta nire lana egitera joango naiz, ea zer moduz ateratzen den.

## Olaizola II vs. Altuna III (2)



«Jokin Altunak seguru badakiela finalean faborittoa bera ez dela»

### EKAITZ SARALEGI ALTUNA III.AREN BOTILEROA

#### **A. Imaz Amezketan**

Astelehen arratsaldean agortu ziren Jokin Altunak eta Aimar Olaizolak hilaren 27an Bizkaia pilotalekuan jokatuko duten finala ikusteko 3.000 sarrerak. Bertan egongo dena Ekaitz Saralegi (Amezketan, 1979) izango da, Altuna III.aren botilero lanetan.

#### **Olaizola II.a eta Altuna III.a, nor baino nor.**

Nork esango zuen orain Aimar eta Jokin buruz buruko finalen ikusiko genituenik. Baina denak ikusita, nire ustez bi onenak iritsi dira finalera, merezimendu osoz. Jendearentzat uste dut partida erakargarria geratu dela. **Olaizola II.aren azken txapela**

#### **2013an izan zen, Juan Martinezen de Irujoren aurka. Bost urte pasa dira.**

Denok dakigu zein pilotari puska den Aimar. Azken urteetan ez da egon finalen, baina orain hemen da. Garrantzitsuena guretzat Jokin egotea zen. Noren aurka berdin zion. Lau t'erdikoa irabazi zuen, binaka txapelketa handia egin du eta orain buruz buruko final handian dago. Behin eskatzen hasita txapela eskatuko dugu, baina hori finalean ikusiko da. 15 egun hauetan deskantsatu eta partida prestatzea tokatzen da.

#### **Julen Retegiri irabaztea koska bat igotzea izan zela esan zuen Jokin Altunak. Gero**

#### **Urrutikoetxea eta Ezkurdia etorri dira, biak txapela janzteko faborittoa, eta hauei ere irabaztea lortu du.**

Txapelketa hasieratik hiru faborittoa zeuden, nabarmen. Irribarra, Urrutikoetxea eta Ezkurdia. Horietatik biri irabazi die Jokinnek. Orain jendeak faborittoa bera dela esango du, baina Jokinnek seguru badakiela ez dela horrela, finalean Aimar Olaizola dagoelako. Horrelako pilotari handiak finaletan hazi egiten dira, Jokin bera hazten den bezala. Iruditzen zait partida handi bat ikusteko aukera izango dugula.

#### **Maiatzaren 27ra bitarte zer egingo duzue?**

Gu behintzat lanera joan. Berak egun pare bat deskantsatu ondoren prestatzen hasi beharko du. Ezer handirik egin gabe. Bilbora etorri, entrenamendu pare bat egin, pilota aukeraketara joan eta listo. Egin beharreko lanak eginda daude jada. Orain alferferrik da entrenamendu gogorrak egitea, dena kalterako izango litzateke; min hartzeko arriskua. Frontoiarekin kontaktu pixka bat bai, baina gozo-gozo.

#### **Joxean Tolosakeraman zuen buruz buruko txapela Amezketara.**

Eta urte batzuk pasa dira. Zoragarria izango litzateke berriz Jokin Altunak txapela hori eramatea.



**ASTEAZKENA, 2018KO MAIATZAK 16**  
**Argitaratzailea:**  
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Naiara Roldan de Aranguiz  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
 villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
 anoetalea@ataria.eus  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
 alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezero arreta zerbitzua:** 902 82 02 01



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA  
107.6 FM

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Eudain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



# 'Tolosa zuria loretan' bigarrenenez

Musika ikuskizunak, antzerkia, bisita gidatuak, azokak, museoen ate irekiak, merkataritzari lotutako egitasmoak... guztiek bat egingo dute, bigarren aldiz, maiatzaren 18 eta 19an



Zerkausian aurkeztu zuten atzo, bi eguneko egitaraua. ATARIA

**Mikel Iraola** Tolosa

Tolosako Udalak, Tolosaldea Garatzenek, Tolosa&Co merkataritza elkartek eta Topic Museoak bat egin dute, bigarren aldiz, *Tolosa zuria loretan* ospatzeko. Egitasmo honek Museoen Nazioarteko Eguna, Gau zuria eta Lore eta Landare azoka uztartzen ditu, asteburu osorako egitarau zabala osatuz.

Hiri ekonomiaren mahaiaren ekimenez jaio zen *Tolosa zuria loretan*, 2016an hasi zuten lanke-tari jarraituz. «Museoen Nazioarteko Eguna eta Gau zuria baliatuz, ekimen indartsu bat abiatzea pentsatu genuen mahaia osatzen dugun eragile guztiok», azaldu du Nerea Letamendia zinegotziak.

Ostiralean, Museoen Nazioarteko Eguna eta Gau Zuria ospatuko dira. Topic museoak atek zabalduko ditu, eta Tolosaldea Tour turismo bulegoak bisita gidatuak antolatuko ditu, gauerako, Alde Zaharreko historia eta misterioak azaltzeko asmoz. Gainera, Gau zuria dela eta, Tolosa&Co elkarteak dendak 22:00ak arte izango dira zabalik, eta ordu horietan gerturatzen diren bezeren artean 150 euroko erosketa txekoa zozkatuko dute. Gainera, Drakonia taldearekin suzko ikuskizuna izango da kalez kale.

Larunbatean Lore eta landareen azoka izango da, Berdura Plazan, 13 postu izango dira. Gainera, Gaztelako atean lorategi efimeroa ere irudikatuko dute.

## EGITARAUA

### Maiatzak 18, ostirala

**10:00-01:00.** Ate irekiak Topic-en.  
**17:00-22:00.** Kontzertuak Tolosako Musika Eskolako ikasleen eskutik, Topic-en.  
**20:00.** Txotxongiloei buruzko argazki lehiaketako sari banaketa eta parte hartu duten argazkiekin osatutako erakusketaren inaugurazioa.  
**19:00-20:00.** Boinas Elozegi erakusketara bisita gidatuak, Aranburun.  
**20:00-22:00.** Shopping white – Tolosa&Co-ko dendak irekita.  
**20:30-21:10.** Suzko ikuskizuna Drakonia taldearen eskutik; Gernikako Arbola, Lopez Mendizabal, Emeterio Arrese, Nafarroa etorbidean... Tolosa&Co-k antolatuta.  
**21:30.** Alde Zaharrean gaueko bisita gidatua euskaraz (Tolosaldea Tour-eko bulegotik hasita).  
**22:30.** Alde Zaharrean gaueko bisita gidatua gazteleraz (Tolosaldea Tour-eko bulegotik hasita).  
**23:30.** Topic museoan gaueko bisita gidatu teatralizatua, helduentzako, Enkarni Genua txotxongilolariarekin eta Amaia Ruiz de Galarreta aurkezlearekin. Bisitak sorpresa izango du.

### Maiatzak 19, larunbata

**9:00-14:00.** Larunbateko Azoka Zerkausian eta Euskal Herria plazan.  
**9:00-14:00.** Lore eta Landare Azoka Berezia Berdura plazan.  
**10:00-14:00.** Ate irekiak Topic-en.  
**15:00-19:00.** Ate irekiak Topic-en.  
**11:30-12:30.** Boinas Elozegi erakusketara bisita gidatuak, Aranburun.  
**16:30-19:30.** Bir Ziklatu Merkaturia – 2. eskuko merkaturia Berdura Plazan.  
**17:30-18:30.** Boinas Elozegi erakusketara bisita gidatuak, Aranburun.  
**17:00-18:00.** Haurrentzako marioneta tailerra Topic-en.  
**19:00.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua, Zerkausian.  
**22:30.** Gozategiren kontzertua, Trianguloan, Tolosa&Co-k antolatuta.

# ASTEAZKENA 16

## AGENDA

### Deialdiak

**Larraul.** Kirol astea. **17:30.** Polizi eta lapurren jolas erraldoia haurrentzat herriko gazteek antolatuta. **Ondoren.** Gazte lokalean merienda. **19:30.** Ordizia Rugby Elkarteko kideen hitzaldia.  
**Tolosa.** Tolosaldea Bus-eko langileen solasaldia. Maiatza Gorriaren barruan izango da solasaldia. Otsabin, 18:30ean.  
**Tolosa.** *Urratsak eta bizikidetzak. Bizikidetzak elkarrekin eraikitzen* ekitaldi-zikloaren barruan izango da saioa. Hizlariak, Gemma Varona eta Laura Pego izango dira eta moderatzaile lanak, Aitziber Blancok egingo ditu. 19:00etan, pleno aretoan.  
**Tolosa.** *El muro marroqui: La versión marroqui del apartheid* liburua aurkezpena. Maiatza Borrokan ekimenaren barruan izango da, eta Gaici Nah idazlearen liburua da. Tolosaldea Sahararekin erakundeak antolatuta. 19:00etan, Antxon Bandres bidaiarien txokoa.  
**Amasa-Villabona.** EH Bilduren baztar irekia. Udallagedi honetako bultzatzea, herri programa osatzeko prozesuaren azalpena eta alkategaia era udal zerrendaren prozesuaz ariko dira. 19:30ean, Subijana etxean.  
**Ikaztegieta.** Euskal abestiak abestea gustuko duen herritar guztiak irekitako saioa da. Hilean behin elkartzen dira herritarrak abesteko, udaletxeko areto nagusian. 20:00etan, udaletxean.

## ATARIA IRRATIA

**09:00-11:00. Pasahitza.** Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzea-ekin eguraldia, Tolosaldea Garatzenen tartea, Oskar Tenarekin artearen txokoa, Iñaki Zubeldia *Kale Kantotik*.  
**11:00-12:00. Eutsi goiari.** Kirol albisteak.  
**12:00-13:00. Entzuteko jaiok.** Musika saioa.  
**15:00. Playback Ataria.** Adrianna Gaultier Djaren musika saioa.  
**16:00-18:00. Zebrabidea.** Arroza Sarearen magazina.  
**18:00-20:00.** Goizeko saioek utzitako onena.  
**20:00. (H)ari naizela.**

Imanol Artola, *felixek*, gidatutako bertso saioa.

## 28 KANALA

**12:30.** Onein.  
**13:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.  
**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.  
**21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.  
**22:00.** Bakearen eta berradiskidetzaren aldeko XIV. Gernika Sariak.  
**22:30.** Eskolarteko Dantzari Eguna 2018.  
**23:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.

## FARMAZIAK

### Gaur

**TOLOSA. Egunekoa.** Olarreaga Aranburu, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 670128.  
**Gauekoa.** Morant Barber, R. Zabalaretan lorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Atzokoaren antzeko eguraldia. Egun osoan zehar hodeiak nagusituko zaizkigu. Batez ere egunaren lehen momentuetan ostarte batzuk izango ditugu. Egun osoan zehar euri txiki modura euria agertzeko aukera dago, gehienez ateratzen eutsiko dio. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko zaigunez, ezin da baztertu momenturen batean euria botatzea. Tenperatura apenas mugituko da, 14-16 gradu bitartean geratuko dira balio altuenak.

**Bihar.** Atzokoaren antzeko eguraldia. Nabarmenezkoak izango da tenperatura balioek gora egingo dutela, bizpahiru gradu gora egingo dute eta eguneko erdiko orduetan, 16-18 gradutan geratuko zaizkigu, balio eramangarriagoak eta epelagoak izango dira. Zeruari dagokionez, orokorrean hodeiak nagusituko dira, osatartetxoren bat edo beste izango dugu. Eguraldi argiago eta lasaia izango dugu. Goizean giro ilunagoa izango dugu.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.